

Lurralde Kohesiorako kontseilaria

BERNARDO CIRIZA PÉREZ

Faltzesen jaio zen 1955. urtean. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu.

Batxilergoa eta UBI egin zituen, eta Administrazioan eta Bankan trebatu zen.

Jarduera profesionala jorratzen 1975ean hasi zen, Nafarroako autopista Huarte y Dragados enpresak eraikitzeke topografia-taldeko partaide gisa. Ondoren, Faltzesko Nekazaritza Kooperatibako kudeatzailea izan zen.

1980. urtean, Banco Guipuzcoanoren bulegoan hasi zen lanean Faltzesen, eta 1985. urtera bitarte zuzendaria izan zen. Beranduago, kargu berean aritu zen Nafarroako Rural Kutxak Azkoien duen bulegoan beste urte batez.

Une horretatik aurrera, 1986. urtean, ibilbide profesionalari ekin zion Nafarroako Kutxan, eta beste 25 urtez bertan lan egin zuen. Faltzes, Azkoien eta Tafallako bulegoen zuzendaria izan zen, Azkoien eta Tafallako zonetako teknikaria, eta, azkenik, Nafarroako Kutxako Nekazaritzako Elikagaien Unitateko zuzendaria (beranduago Banca Civica).

Ibilbide politikoari dagokionean, PSN-PSOeko zinegotzia izan zen Faltzesko Udaletxean, 2011-2015 eta 2015-2019 legegintzaldietan. Era berean, Azkoien Zonako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria izan zen 2011 eta 2015 urte artean eta 2012az geroztik PSNko Exekutibako kidea Landa Garapen, Ingurumen, Aldaketa Klimatiko eta Trantsizio Ekologikoko idazkari bezala. Halaber, Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hiriko Administrazio Kontseiluko partaide izan da 2013-2019 denboraldian, eta PSNko ordezkaria da Nafarroako Errege Bardeako Batzorde Iraunkorrean 2018az geroztik.

2019ko abuztuan, Lurralde Kohesiorako kontseilari izendatu dute PSNk proposatuta.